

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

CURSOS DE VERANO
UDAKO IKASTAROAK

(EZEZTATUTA) Hezkuntzaren eta ondarearen arteko loturak. Ondare hezkuntzaren erronkak

IRAILAK 28 - 30

Iruñea eta Astitz

Hezkuntza eta Gizarte Zientziak

Castellano

Kredituak: 0,5

60 ikaspostu

15

10 ordu

Bukatuta, Concluido

2023ko irailaren 25a arte

Hezkuntzari buruzko azken legeak (LOMLOE) protagonismo berezia ematen dio ondareari, ikuspegi eguneratu batetik, GJHeekin eta generoarekin, dibertsitatearekin,

identitatearen osaerarekin eta bestelako gaiekin lotzen baitu. Arau esparru hori ikasgeletan islatuko dela bermatzeko, beharrezkoa da hasierako prestakuntzako irakasleen gaitasuna hobetzea, eta elkarguneak sortzea ondarea kontserbatzen, erakusten eta ikertzen diharduten erakundeentzako eta hezkuntza formalean dihardutenentzat. Ikastaro honek helburu argi bat du: museoetan, interpretazio zentroetan eta hezkuntza-erakundeetan –bereziki Nafarroan– garatzen ari diren ondare hezkuntzako ekimenak ezagutaraztea, eta hezkuntza-lege berrian ezarritako helburuak betetzen lagunduko duten lankidetzak bultzatzeko beharrezkoa den espazioa sortzea.

NORENTZAT

Museoetako eta ondare espazioetako langileak. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Irakasletzako eta Historiako eta Ondareko graduetaiko ikasleak. Bigarren Hezkuntzako Irakasletzako eta Historiako eta Memoriako masterretako ikasleak.

IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Amaia Arriaga Azcárate, NUPeko Giza eta Hezkuntza Zientzien Saileko irakaslea.

Elur Ulibarrena Herce, Nafarroako museoen eta ondare espazioen kudeatzaileen ONDAREZAIN elkarteko lehendakaria.

OSTEGUNA 28 IRAILA

16:30 - 17:00 Ikastaroaren aurkezpena

Hezkuntzaren eta ondarearen arteko loturak. Ondare hezkuntzaren erronkak

Amaia Arriaga Azcárate, NUPeko Giza eta Hezkuntza Zientzien Saileko irakaslea.

Elur Ulibarrena Herce, Nafarroako museoen eta ondare espazioen kudeatzaileen ONDAREZAIN elkarteko lehendakaria.

Betisa Ojanguren, “Bitartean: Arte y educación” taldearen fundatzaileetako bat, Uharteko Arte Garaikideko Zentroko hezkuntzako eta bitartekotzako arduraduna eta NUPeko Esperientziaren Gelako irakasle elkartua.

17:00 - 18:00 Hasierako hitzaldia

Ondare hezkuntza eta LOMLOE: erronkak eta aukerak

Pablo de Castro, Valladolideko Unibertsitateko Adierazpen Plastikoaren Didaktikako irakaslea eta ikertzailea.

18:00 - 19:00 Hitzaldia

Ondare hezkuntzako esperientziak Uxueko ikastetxe publikoan

Esther Leza Ongay, Uxueko IPko zuzendari ohia.

19:00 - 20:00 Txostena

Erakundeen arteko lankidetzaren ondare hezkuntzako irakasleen hasierako prestakuntzarako

Amaia Arriaga Azcárate, NUPeko Giza eta Hezkuntza Zientzien Saileko irakaslea.

OSTIRALA 29 IRAILA

10:00 - 11:00 Hitzaldia

Oinez basoa

Marta Igoa Erro, Oinez Basoa proiektuaren arduraduna eta Nafarroa Oinez koordinatzaile orokorra. Nafarroako Ikastolen Elkarte.

11:00 - 12:00 Hitzaldia

Ondare hezkuntzako proiektu eta baliabideak lurraldean

Betisa Ojanguren San Millán, “Bitartean: Arte y educación” taldearen fundatzaileetako bat, Uharteko Arte Garaikideko Zentroko hezkuntzako eta bitartekotzako arduraduna eta NUPeko Esperientziaren Gelako irakasle elkartua.

Marta Bidador González, irakaslea eta “Bitartean: Arte y educación” taldearen fundatzaileetako bat.

12:00 - 13:00 Hitzaldia

Natura-ondarea Haur Hezkuntzan. MANCOEDUCA programa

Mar García Echeverría, Lavolako hezkuntza-programen koordinatzailea, Iruñerriko Zerbitzu Mankomunitateko *Mancoeduca* programaren arduraduna.

Zehaztu gabeko gonbidatua: *Mancoeduca* programaren erabiltzailea.

17:00 - 18:00 Hitzaldia

Batxilergoan Historiaren arlotik ondare interakzioa lantzeko zenbait proposamen

Carlos Martínez Álava, Iruñeko Mendillorri BHIko Bigarren Hezkuntzako irakaslea.
Nafarroako Gobernuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko zuzendari ohia.

18:00 - 19:00 Hitzaldia

**Museo ibiltaria: 100 objektu Historia egiteko. Iruñeko Erresumako Museo
Etnografikoaren proiektu pedagogikoa**

Elur Ulibarrena Herce, Artetako Iruñeko Erresumako Museo Etnografikoko zuzendaria
eta Nafarroako museoen eta ondare espazioen kudeatzaileen ONDAREZAIN elkarteko
lehendakaria. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kidea

19:00 - 20:00 Hitzaldia

Ondare hezkuntzako berrikuntza-proiektuak: Asmatu - Ikertu - Hezi - Sortu

Pablo de Castro Martín, Valladolideko Unibertsitateko Adierazpen Plastikoaren
Didaktikako irakaslea eta ikertzailea.

LARUNBATA 30 IRAILA

09:15 - 10:15 (Irteera: Iruñeko bus geltokitik) Bidaia autobusez

Iruñea - Mendukiloko lezea (Astitz)

10:30 - 10:45 Harrera ofiziala

Harrera-ekitaldia Lekunberriko eta Larraungo alkateen eskutik

Lekunberriko eta Larraungo udaletako alkateek harrera ofiziala egingen diete parte-
hartaileei Plazolako geltoki zaharrean.

10:45 - 11:15 Aurkezpena

**Mendukilo 3D. Errealitate birtualeko proiektu bat, hezkuntza-komunitateari
zuzendua**

Amaia Govillar Arza, ingurumeneko hezitzailea, hezkuntza-proiektuaren arduraduna
eta Mendukiloko lezeko gida.

Maite Jiménez Suasti, DBH-ko irakaslea Zizurko Institutoan.

Begoña Erroz Aizkorbe, LH-ko irakaslea San Fermin Ikastolan.

11:15 - 11:45 Atsedenaldia

Hamaiketakorako etenaldia

Bertako erakunde laguntzaileek eskainia

12:00 - 13:00 Bisita gidatua

Bisita didaktikoa Mendukiloko lezera

Amaia Govillar Arza, ingurumeneko hezitzailea, hezkuntza-proiektuaren arduraduna eta Mendukiloko lezeko gida.

Miren Larburu Echeverría, Mendukilo. Mendukilo kobaren koordinatzailea eta gida.

13:00 - 14:00 Bidaia autobusez

Mendukiloko lezea (Astitz) - Iruñea

ANTOLATZAILEA

NUP / ONDAREZAIN elkarte

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa





Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



LAGUNTZAILEA

Nafarroako Gobernua

Lekunberriko Udala

Larraungo Udala

Bitartean: Arte y educación